



Fp
EUSKADI
LANBIDE HEZIKETA

EUSKADIKO LANBIDE HEZIKETAREN EGUNGO EGOERA

ERRONKEI ERANTZUTEN

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA
Lanbide Heziketako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Viceconsejería de Formación Profesional





EUSKADIKO LANBIDE HEZIKETAREN EGUNGO EGOERA

**ERRONKEI
ERANTZUTEN**



AURKIBIDEA

1/	ESKARI HANDIENA DUTEN PRODUKZIO-SEKTOREAK CONFEBASKEN BI URTEZ BEHINGO TXOSTENA (2022KO AZAROA)	5
2/	2023-2024KO IKASTURTEAN LANBIDE HEZIKETAKO 1. MAILAN ESKAINITAKO PLAZAK, PRODUKZIO-SEKTOREEN ARABERA	6
3/	ENPRESEK GEHIEN ESKATZEN DITUZTEN HEZIKETA-ZIKLOAK CONFEBASKEN TXOSTENA (2022KO AZAROA)	8
4/	ENPLEGAGARRITASUN HANDIENA DUTEN HAMAZAZPI HEZIKETA-ZIKLOETAN 2023-2024KO IKASTURTEAN LANBIDE HEZIKETAKO 1. MAILAN ESKAINITAKO PLAZAK, HANDIENETIK TXIKIENERA	9
5/	BEHAR DITUZTEN LANGILEAK AURKITZEKO ENPRESEK ADIERAZITAKO ZAILTASUNAK CONFEBASKEN TXOSTENA (2022KO AZAROA)	10
6/	EUSKADIKO LANBIDE HEZIKETARI BURUZKO BESTE DATU INTERESGARRI BATZUK	19



1/ ESKARI HANDIENA DUTEN PRODUKZIO-SEKTOREAK

Confebasken bi urtez behingo txostena (2022ko azaroa)

CONFEBASK Euskal Enpresarien Konfederazioak egindako txostena aztertuta, ikusten da honako hauek direla profesional gehien eskatzen duten zazpi sektoreak, eskari handienetik txikienerako hurrenkeran, Euskal Autonomia Erkidegoan Lanbide Heziketaren arloan lantzen diren 23 sektoreak aintzat hartuta:

1/ FABRIKAZIO MEKANIKOA

2/ ADMINISTRAZIOA ETA KUDEAKETA

3/ ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA

4/ INSTALAZIOA ETA MANTENTZE-LANAK

5/ INFORMATIKA ETA KOMUNIKAZIOAK

6/ KIMIKA

7/ MERKATARITZA ETA MARKETINA

2 / 2023-2024KO IKASTURTEAN LHKO 1. MAILAN ESKAINITAKO PLAZAK, PRODUKZIO-SEKTOREEN ARABERA

Taula honetan, **2023-2024ko egungo ikasturtearen datuak aurkezten dira, lanbide-sektoreen arabera**, 1. mailari dagozkionak (izan ere, LHko sisteman sartzen diren ikasle berriak azaltzen ditu) eta euskal lanbide-heziketako 23 sektoreetako bakoitzerako.




30.484

ESKAINITAKO
PLAZAK




24.916

MATRIKULATUTAKO
PERTSONAK



% 81,73

ESKAINITAKO PLAZEN
OKUPAZIOA



% 89,60

ENPLEGAGARRITASUNA

Taula: 2023-2024ko ikasturtean Lanbide Heziketako 1. mailan eskainitako plazak, produkzio-sektoreen arabera.

LANBIDE-ARLOAK	ESKAINITAKO PLAZAK, GUZTIRA 1. MAILA	MATRIKULATU-TAKO IKASLEAK, GUZTIRA 1. MAILA	BETETAKO PLAZEN % ESKAINITAKO-EKIKO	ENPLEGAGARRI-TASUNA
Fabrikazio mekanikoa	3.925	3.127	% 79,67	% 91,89
Elektrizitatea eta elektronika	3.475	2.530	% 72,81	% 89,82
Informatika eta komunikazioak	2.870	2.336	% 81,39	% 90,86
Osasun arloa	2.712	2.604	% 96,02	% 86,57
Instalazioa eta mantentze-lanak	2.456	1.908	% 77,69	% 95,01
Administrazioa eta kudeaketa	2.355	2.062	% 87,56	% 83,98
Gizarte- eta kultura-zerbitzuak	2.219	1.956	% 88,15	% 82,35
Ostalaritza eta turismoa	1.753	1.303	% 74,33	% 84,52
Garraioa eta ibilgailuen mantentze-lanak	1.611	1.345	% 83,49	% 89,82
Merkataritza eta marketina	1.258	1.090	% 86,65	% 82,60
Irudi pertsonala	1.213	970	% 79,97	% 80,30
Jarduera fisikoak eta kirol-jarduerak	740	708	% 95,68	% 92,42
Eraikuntza eta obra zibilak	500	319	% 63,80	% 86,03
Kimika	494	433	% 87,65	% 88,79
Nekazaritza	475	373	% 78,53	% 90,86
Irudia eta soinua	470	362	% 77,02	% 77,43
Zurgintza, altzarigintza eta kortxoak	416	337	% 81,01	% 85,92
Arte grafikoak	380	345	% 90,79	% 79,11
Itsasoa eta arrantza	350	277	% 79,14	% 86,73
Energia eta ura	283	170	% 60,07	% 98,08
Elikagaien industriak	218	130	% 59,63	% 74,45
Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza	186	156	% 83,87	% 81,16
Segurtasuna eta ingurumena	125	75	% 60,00	% 90,15
GUZTI-GUZTIRA	30.484	24.916	% 81,73	% 89,60

Iturria: ebaluazio propioa.

3 / ENPRESEK GEHIEN ESKATZEN DITUZTEN HEZIKETA-ZIKLOAK

Confebasken txostena (2022ko azaroa)

CONFEBASKek 2022an egindako “Demografia eta Lanbide Heziketa. Lanbide Arloak” biurteko txostenaren analisira itzulita, **kontratazio berrien % 76,5** erdi-mailako eta goi-mailako hamazazpi heziketa-ziklotakoak dira. Hauek dira ziklo horiek:

FABRIKAZIO MEKANIKOA SEKTOREA (5 ZIKLO)

EMHZ (Erdi Mailako Heziketa Zikloak)	1 / Mekanizazioa 2 / Soldadura eta Galdaragintza
GMHZ (Goi Mailako Heziketa Zikloak)	3 / Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa 4 / Fabrikazio Mekanikoko Diseinua 5 / Metalezko Eraikuntzak

INFORMATIKA ETA KOMUNIKAZIOA SEKTOREA (4 ZIKLO)

EMHZ (Erdi Mailako Heziketa Zikloak)	1 / Mikroinformatika-sistemak eta Sareak
GMHZ (Goi Mailako Heziketa Zikloak)	2 / Sareko Informatika Sistemen Administrazioa 3 / Plataforma Anitzeko Aplikazioen Garapena 4 / Web Aplikazioen Garapena

ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA SEKTOREA (3 ZIKLO)

EMHZ (Erdi Mailako Heziketa Zikloak)	1 / Instalazio Elektriko eta Automatikoak
GMHZ (Goi Mailako Heziketa Zikloak)	2 / Automatizazioa eta Robotika Industrialia 3 / Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak

INSTALAZIOA ETA MANTENTZE-LANAK SEKTOREA (2 ZIKLO)

EMHZ (Erdi Mailako Heziketa Zikloak)	1 / Mantentze Lan Elektromekanikoak
GMHZ (Goi Mailako Heziketa Zikloak)	2 / Mekatronika Industrialia

ADMINISTRAZIOA ETA KUDEAKETA SEKTOREA (2 ZIKLO)

EMHZ (Erdi Mailako Heziketa Zikloak)	1 / Administrazio Kudeaketa
GMHZ (Goi Mailako Heziketa Zikloak)	2 / Administrazioa eta Finantzak

KIMIKA SEKTOREA (1 ZIKLO)

GMHZ (Goi Mailako Heziketa Zikloak)	1 / Analisisiko eta Kalitate Kontroleko Laborategia
-------------------------------------	---

4 / ENPLEGAGARRITASUN HANDIENA DUTEN HAMAZAZPI HEZIKETA-ZIKLOETAN 2023-2024KO IKASTURTEAN LANBIDE HEZIKETAKO 1. MAILAN ESKAINITAKO PLAZAK, HANDIENETIK TXIKIENERA

Taula 2: 2023-2024ko ikasturtean eskari handiena duten zikloetan Lanbide Eziketaren eskaintako plazak.

MAILA	ZIKLOA	PLAZAK, GUZTIRA ESKAINITAKOAK 1. MAILA	MATRIKULATUTAKO IKASLEAK, GUZTIRA 1. MAILA	BETETAKO PLAZEN % ESKAINITAKO-EKIKO	ENPLEGAGARRITASUNA
GMHZ	Administrazioa eta Finantzak	1.300	1.151	% 88,54	% 86,07
GMHZ	Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa	1.060	780	% 73,58	% 92,88
EMHZ	Mekanizazioa	996	839	% 84,24	% 94,94
EMHZ	Mikroinformatika-sistemak eta Sareak	834	706	% 84,65	% 77,43
GMHZ	Automatizazioa eta Robotika Industriala	834	665	% 79,74	% 92,88
EMHZ	Administrazio Kudeaketa	823	703	% 85,42	% 76,63
GMHZ	Mekatronika Industriala	793	668	% 84,24	% 94,95
EMHZ	Instalazio Elektriko eta Automatikoak	784	620	% 79,08	% 87,72
EMHZ	Mantentze Lan Elektromekanikoak	640	503	% 78,59	% 97,11
GMHZ	Sareko Informatika Sistemen Administrazioa	550	449	% 81,64	% 89,82
GMHZ	Fabrikazio Mekanikoko Diseinua	549	356	% 64,85	% 84,00
GMHZ	Plataforma Anitzeko Aplikazioen Garapena	498	399	% 80,12	% 100,00
GMHZ	Web Aplikazioen Garapena	495	400	% 80,81	% 91,89
GMHZ	Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak	468	305	% 65,17	% 97,00
EMHZ	Soldadura eta Galdaragintza	467	416	% 89,08	% 86,68
GMHZ	Metalezko Eraikuntzak	250	188	% 75,20	% 95,97
GMHZ	Analisisiko eta Kalitate Kontroleko Laborategia	224	196	% 87,50	% 88,75
HAMAZAZPI HEZIKETA-ZIKLO HORIEK, GUZTIRA		11.565	9.344	% 80,8	

Iturria: ebaluazio propioa.

5 / BEHAR DITUZTEN LANGILEAK AURKITZEKO ENPRESEK ADIERAZITAKO ZAILTASUNAK

Confebasken txostena (2022ko azaroa)


CONFEBASKek egindako azterketara itzulita, enpresek pertsonak aurkitzeko izaten dituzten zailtasunen zenbait arrazoi nabarmentzen dituzte. **Honako hauek dira zailtasun horiei aurre egiteko jorratu beharreko gaiak**, garrantziaren arabera hurrenkeran:

- > Lan-merkatuan sartzeko aukera duten pertsonen kopurua handitzea.
- > Ikasleen espezializazioa indartzea.
- > Zeharkako gaitasunak indartzea (jarrera/prestasuna/interesa...).
- > Lan-ingurunean esperientzia handiagoa egiaztatzea.
- > Hizkuntza-gaitasuna indartzea.
- > Teknologia digitalen ezagutza sustatzea.

5.1 / EUSKADIKO LANBIDE HEZIKETAK LAN-MERKATURATZEKO AUKERA DUTEN PERTSONEN KOPURUA HANDITZEKO BEHARRARI EMATEN DION ERANTZUNA

Prestakuntza egokia duten pertsonak behar izatea da Euskadiko Lanbide Heziketaren kezka historikoetako bat, ohartu baitziren profesionalen beharra handituz zihoala, Lanbide Heziketan titulaturako pertsonena, batez ere. Behar horri erantzuteko, eskaintza pixkanaka handitu behar izan da, bai titulazio berrietan, bai heziketa-zikloetako plaza kopuruan. Egungo 2023-2024ko ikasturtean, eta aintzat hartuta ikasturte osoan zehar heziketa-ziklo baten zatiak egiteko aukera dagoela, **Euskadiko Lanbide Heziketak 49.000 ikasle matrikulatu baino gehiago izango ditu, hau da, 2019-2020ko ikasturtearekin alderatuta, % 14 ikasle gehiago eta % 24,62 heziketa-ziklo eta espezializazio-ikastaro gehiago.**

Eskaintzen diren heziketa-zikloen eta espezializazio-ikastaroen kopuruari begira, azterketak honako datu hauek ematen ditu:



Horrek eskainitako heziketa-ziklo eta espezializazio-ikastaroak % 24,62 haztea dakar, azken 4 ikasturteekiko.

5.2/ EUSKADIKO LANBIDE HEZIKETAK IKASLEEN ESPEZIALIZAZIOA INDARTZEARI EMATEN DION ERANTZUNA

CONFEBASKen txostenak aipatzen duen prestakuntza/espezializazio beharrak esan nahi du heziketa-zikloak eguneratu egin behar direla, lanbide-sektore guztietan gertatzen diren aldaketa eta aurrerapenei erantzun ahal izateko. **Gainera, txosten horrek aipatzen du profil berriak prestatu behar direla eta gehitzen du enpresen % 33k areagotu egingo dutela honako profil berri hauek dituzten pertsonen kontratazioa:**

- > Zibersegurtasuna.
- > Prozesu industrialetan aplikatutako datuen segurtasuna.
- > Automatizazioa eta robotika industrialia.
- > Trokelen diseinua eta mantentze-lana.
- > Energia-efizientzia eta energia berriztagarriak.
- > Mekatronika.
- > Programazioa.
- > Adimen artifiziala.
- > 4.0 industria.
- > Automatizazioa.
- > Big Data.

Gaur egun Euskadiko Lanbide Heziketak honako hauek ezarriz erantzuten du:

- 1 / Espezializazio-programak.
- 2 / Espezializazio-ikastaroak.

1 / ESPEZIALIZAZIO-PROGRAMAK

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren Lanbide Heziketako Sailburuordetzak diseinatutako prestakuntza-programak dira, nahieran eskatutakoak, produkzio-sektoreetan sortzen diren beharrei arin erantzuten dietenak. Azkar diseinatutako programak dira, hots, hiru bat hilabeteko denbora tartean. Ikas-ekinezko erregimeneko modalitate dualean ematen dira, eta, batez beste, 900 orduko iraupena izaten dute ikasturte batean. Horien helburua da egungo heziketa-zikloek eta espezializazio-ikastaroek asetzen ez dituzten produkzio-sektoreek eskatzen dituzten gaitasun berrietan trebatzea gure ikasleak eta enpresa interesduneko langileak.

Gaur arte, 42 programa diseinatu dira, 150 enpresari baino gehiagori erantzun zaie eta 1000 bat pertsonak hartu dute parte heziketa horretan. Denek lortu dute dagokien ziurtagiria.

2 / ESPEZIALIZAZIO-IKASTAROAK

Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Kiroletako Ministerioak diseinatutako heziketa-ikastaroak dira, produkzio-sektoreetan sortzen diren eta heziketa-zikloetan jorratzen ez diren espezializazio-beharrei erantzuten dietenak. Lehenengo espezializazio-ikastaroak 2020an argitaratu ziren EHAA-n. Gaur egun, 21 espezializazio-ikastaro daude argitaratuta, eta horiek lanbide-heziketan aintzat hartzen diren 26 lanbide-sektoreetatik bederatziri dagozkie. Ikastaro horiek gainditzen dituen ikasleak Teknikari Espezialistaren titulua edo Lanbide Heziketako Master titulua lortzen du, zeina erdi-mailako edo goi-mailako heziketa-zikloaren jarraipena den, hurrenez hurren.

Euskadiko Lanbide Heziketak 2021-2022ko ikasturtean eskaini zituen lehen aldiz. Hona hemen horiei buruzko datuak:

> Zazpi espezializazio-ikastaro sei lanbide-sektoretan ezarriak.



12 TALDE



146 IKASLE

2023-2024ko ikasturteko datuak hauek dira:

> Hemezortzi espezializazio-ikastaro bederatziri lanbide-sektoretan ezarriak. Horien artean daude aipatutako profil berriei erantzuten dietenak: zibersegurtasuna eragiketa-teknologien inguruneetan, zibersegurtasuna informazioaren teknologien inguruneetan, robotika kolaboratiboa, adimen artifiziala eta Big Data, fabrikazioa aditiboa, fabrikazio adimenduna eta mantentze industrialaren digitalizazioa.



53 TALDE



496 IKASLE

Ezarritako espezializazio-ikastaroen kopuruak % 367,82 egin du gora, eta matrikulatutako ikasleen kopuruak, % 239,72.

5.3/ EUSKADIKO LANBIDE HEZIKETAK ZEHARKAKO GAITASUNAK INDARTZEARI EMATEN DION ERANTZUNA (JARRERA/PRESTASUNA/INTERESA)

Atal honetan, CONFEBASKen 2022ko “Demografia eta Lanbide Heziketa. Lanbide Arloak” biurteko txostenak adierazten du beharrezkoa dela ikasleei, gaitasun profesionalez gain, zeharkako gaitasunak ematea talde-lana errazteko, arazoak errazago konpontzeko eta pentsamendu kritiko konstruktiboari eta abarri bide emateko. Gai horri aurre egiteko, Euskadiko Lanbide Heziketak errendimendu handiko prestakuntza bat ezarri du, metodologia aktiboetan oinarritua, eta, zehazki, Erronketan Oinarritutako Elkarlaneko Ikaskuntzan. Metodologia horretan barne hartzen dira, egiten ari den heziketa-zikloan behar den prestakuntza teknikoaz gain, zeharkako hogeita bost gaitasun, bai eta pentsamendu kritiko, eraikitzailea eta sortzailea garatzea eta adimen emozionala, sortzailea eta exekutiboa garatzea ere. Gainera, metodologia horietan, gizakiaren balioak (4.0 balioak) lantzen dira, adimen artifizialaren, robotikaren eta sistema adimendunen aurrerapenaren aurrean, eta balio horiek Lanbide Heziketako ikasleen ikaskuntza-prozesuan txertatzea bultzatzen da.

5.3.1 / GOI-ERRENDIMENDUKO IKASKUNTZARI BURUZKO 2023-2024 IKASTURTEKO DATUAK

> ERRONKETAN OINARRITUTAKO ELKARLANEKO IKASKUNTZA



GOI-ERRENDIMENDUKO
METODOLOGIA EREDUA
EZARRIA DUTEN

83

IKASTETXE



IRAKASKUNTZAN
METODOLOGIA HORI
ERABILTZEN DUTEN

2.048

IRAKASLE



25.421

IKASLE GOI-ERRENDIMENDUKO
IKASKUNTZA-PROZESUAN



GOI-ERRENDIMENDUAN
EMATEN DIREN

612

ZIKLO

> 4.0 BALIOAK

Euskadiko Lanbide Heziketan gizakiaren balioak indartzeko xedez, balio horiek Lanbide Heziketako ikasleen ikaskuntza-prozesuan txertatzeko proiektu hau bultatzen ari da. 2023-2024 ikasturtean, hauek dira 4.0 balioak Lanbide Heziketan ezartzeari buruzko datuak:



39

IKASTETXEK 4.0 BALIOAK
EZARRI DITUZTE IKASKUNTZAN



215

IRAKASLEK, 4.0 BALIOAK
LANTZEN DITUZTE IKASKUNTZAN



3.566

IKASLEK BALIOAK GARATZEN
DITUZTE IKASKUNTZAN



103

HEZIKETA-ZIKLOK BALIOAK
BARNE HARTZEN DITUZTE
IKASKUNTZA-EDUKIETAN

5.3.2 / EKINTZAILETZA

Aurretik aipatutako bi programez gain, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren Lanbide Heziketako Sailburuordetza ekintzailletza-programak lantzen ari da, gure ikasleei lanbide-gaitasunetatik haragoko gaitasunak emateko.





Ekintzailletza, gaur egun, bi eremutan lantzen da:

- > LHko ikasleen ekintzailletza-kultura sustatzea.
- > LHko ikasleek enpresak sortzea sustatzea.

> EKINTZAILETZAREN KULTURA SUSTATZEARI BURUZKO DATUAK (2020-2024)

	87	IKASTETXEK, PROGRAMAN PARTE HARTZEN DUTE
	1.024	IRAKASLEK, PROGRAMAN PARTE HARTZEN DUTE
	92.378	PRESTATUTAKO IKASLEAK
	263	ZIKLOTAN ERAGITEN DU PROIEKTUAK

> ENPRESAK SORTZEA SUSTATZEARI BURUZKO DATUAK (2020-2024)

	IKASTETXEEN KOP.	75	PARTAIDE PROGRAMAN
	ENPRESA SIMULATUEN PROIEKTUEN KOP.	4.851	
	BENETAKO ENPRESEN PROIEKTUEN KOP.	709	
	ERATUTAKO BENETAKO ENPRESEN KOP.	277	

5.4/ IKASLEEK LAN-INGURUNEAN ESPERIENTZIA HANDIAGOA EGIAZTA DEZATEN EUSKADIKO LANBIDE HEZIKETAK EMATEN DUEN ERANTZUNA

Euskadiko Lanbide Heziketak duela hamaika urte baino gehiago bazekien behar hori zegoela, eta, harrizkerok, ikas-ekinezko erregimeneko lanbide-heziketa duala ezarriz joan da. Lanbide-heziketa horrek ikastetxeko prestakuntza eta enpresako prestakuntza bateratzen ditu ikasleen heziketa hobetzeko, haien lan-ingurunean esperientzia handitzeko eta Lanbide Heziketako ikasleak EAEko produkzio-inguruneak eskatzen dituen gaitasunetan trebatzeko.

Taula honek lanbide-heziketa dualean ikastetxeek, ikasleek eta enpresek izandako parte-hartzearen bilakaerari buruzko datuak ematen ditu. Kontuan izan behar da aurkezten diren datuek ez dituztela hartzen Lantokiko Prestakuntza jaso duten ikasleak. Taula honetan aurkezten dira EAEko lanbide-heziketa dualari buruzko datuak, 2013ko ikasturtetik egun arte:

Taula 3: Heziketa dualean ikastetxeek, ikasleek eta enpresek izandako parte-hartzearen bilakaera

LH DUALAREN BANAKETA	DATUAK				
	IKASTETXEEN KOP.	IKASLEEN KOP.	IKASLEEN GEHIKUN- TZAREN %	ENPRESEN KOP.	HEZIKETA DUALE- KO IKASLEEN GEHIKUNTZAREN %
2012-13KO IKASTURTEA	28	124		95	
2013-14KO IKASTURTEA	44	238	92	176	85
2014-15EKO IKASTURTEA	58	402	69	311	77
2015-16KO IKASTURTEA	71	759	89	475	53
2016-17KO IKASTURTEA	85	1.283	69	790	66
2017-18KO IKASTURTEA	97	1.913	49	1.122	42
2018-19KO IKASTURTEA	97	2.295	20	1.434	28
2019-20KO IKASTURTEA	104	2579	12	1.597	11,36
2020-21EKO IKASTURTEA*	97	1.506	-41,6	959	-44,5
2021-22KO IKASTURTEA	102	5.394	258,16	3.132	226,59
2022-23KO IKASTURTEA	109	10.982	103,6	7.000	123,5
2023-24KO IKASTURTEA	109	14.728	34,11	8.353	19,32

* COVID-19aren eragina

Iturria: ebaluazio propioa.

2024-2025eko ikasturterako, Lanbide Heziketa osoa duala izango da. Gure ustez, 53.000 ikasle baino gehiago izango dira, eta 20.000 enpresa inguruk hartuko dute parte.

5.5/ EUSKADIKO LANBIDE HEZIKETAK HIZKUNTZA-GAITASUNA INDARTZEARI EMATEN DION ERANTZUNA

Hizkuntza-gaitasunek gero eta garrantzi handiagoa dute, bai gizartean, bai lanean. Ikasleek eta irakasleek besteak beste gaitasun hori eskuratzea bultzatzen duten bi programatan parte hartzea sustatzen du Euskadiko Lanbide Heziketak:

- > Heziketa-zikloak eta espezializazio-ikastaroak ezartzea ele anitzeko modalitatean.
- > Europako mugikortasun-programa Lanbide Heziketako ikasle eta irakasleentzat (ERASMUS+).

5.5.1 / ELE ANITZEKO ZIKLOAK

Heziketa-ziklo horietan, ikasleek moduluen zati bat ingelesez egiten dute, edo, kokapen geografikoa dela-eta edo ikasleen enplegarritasuna hobetzeko, ikastetxearen ustez beharrezkoa den beste hizkuntza batean.

Taula 4: Ele anitzeko modalitateko zikloen ezarpenaren bilakaera.

ELE ANITZEKO LH-AREN DATUAK	IKASTURTEA				
	2019-2020	2020-2021	2021-2022	2022-2023	2023-2024
Ele anitzeko modalitateko zikloak ezarriak dituzten Lanbide Heziketako ikastetxeen kop.	22	24	22	23	23
Ele anitzeko modalitatean ezarritako zikloen kop.	32	34	34	37	38
Ele anitzeko modalitateko zikloetan matrikulatutako ikasleen kop.	719	735	724	750	846
Ele anitzeko modalitatean ezarritako zikloak egiten dituzten taldeen kop.	92	92	93	94	110

5.5.2 / ERASMUS+ PROGRAMA

Programa honek Lanbide Heziketako ikasleak eta irakasleak Europan zehar mugitzea sustatzen du; bereziki, hizkuntza-gaitasunak eta zeharkako gaitasunak hobetzeko.

Honako hauek dira programa honen azken lau deialdietan parte hartu duten ikasleen eta irakasleen datu bateratuak, Covid izurritea zela-eta 2020-2021eko ikasturtea aintzat hartu gabe:



MUGITU DIREN IRAKASLEEN KOP. **1.889**



MUGITU DIREN IKASLEEN KOP. **5.407**

5.6/ EUSKADIKO LANBIDE HEZIKETAK TEKNOLOGIA DIGITALEN EZAGUTZA SUSTATZEARI EMATEN DION ERANTZUNA

Lanbide Heziketako ikasleek eraldaketa digitalerako beharrezkoak diren eta teknologia aurreratuetara egokituta dauden gaitasun digitalak egiazta ditzaten, Euskadiko Lanbide Heziketak digitalizazioa lan-tzen du, bai ikasteko prozesuan, bai Euskadiko Lanbide Heziketak ikastetxeetan.

Gaur arte, honako datu hauek ditugu:



DIGITALIZAZIO AURRERATUAN
LAN EGITEN DUTEN LANBIDE
HEZIKETAKO IKASTETXE BATERATUAK

70



IRAKASKUNTZAKO EGIAZTAGIRI
DIGITALA DUTEN IRAKASLEAK

2.950

6 / EUSKADIKO LANBIDE HEZIKETARI BURUZKO BESTE DATU INTERESGARRI BATZUK

Euskadiko Lanbide Heziketak, orain arte esandako guztiaz gain, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren Lanbide Heziketako Sailburuordetzaren estrategian garrantzitsutzat jotzen diren beste esparru batzuetan ere egiten du lan. Hona esparruak:

- > Ikerketa eta berrikuntza aplikatuak.
- > Nazioartekotzea.

6.1 / IKERKETA ETA BERRIKUNTZA APLIKATUKO SISTEMA EUSKADIKO LANBIDE HEZIKETAN

INGURUNE ESTRATEGIKOAK (TKGUNE PROGRAMA)

Programa honetan, ikastetxeek, lankidetzaproiektuen bidez, produkzio-ingurunearen eskura jartzen dituzte (batez ere, ETEen eta mikroETEen eskura) beren ezagutza, ekipamenduak eta azpiegiturak, prozesuak eta produktuak hobetzeko berrikuntza aplikatua landu ahal izateko:

Gaur egun, sei inguru estrategikotan egiten da lan:

- > Mugikortasuna.
- > Energia eta Ingurumena.
- > Digitalizazioa eta Konektibitatea.
- > 4.0 Industria eta Fabrikazio Aurreratua.
- > Bioteknologia eta Osasuna.
- > E-Comerce, Ostalaritza eta Turismoa.

Atal honetan, zeinetan produktu eta produkzio-prozesuetan aplikatutako berrikuntzari buruzko proiektuak sartu ditugun, Lanbide Heziketan ikerketa eta berrikuntza aplikatuko sistema osoan garatzen diren proiektuak daude.

ETEak eta MikroETEak berrikuntza aplikatuko proiektuak garatzen hasteak estrategikoa izaten jarraitzen du Eusko Jaurlaritzarentzat. Horregatik guztiagatik, Lanbide Heziketako ikastetxeek enprekin elkarlanean berrikuntza aplikatuko proiektuak gara ditzaten bultzatzen jarraituko dugu, produktu eta ekoizpen-prozesu berritzaileak garatzeko xedearekin.

Berrikuntza aplikatuari buruzko azken hiru urteetako datuak (2021, 2022 eta 2023):



**BERRIKUNTZA APLIKATUA
ENPRESEKIN LANDU DUTEN
IKASTETXEAK**

45



**ENPRESAK, ZEINEKIN LANKIDETZAN
ARITU BAITA BERRIKUNTZA
PROIEKTUETAN**

1.559



**ENPRESAK, ZEINEKIN GARATU
BAITIRA BERRIKUNTZA PROIEKTUAK**

1.158

ESPEZIALIZAZIO-ARLOAK

Arlo horietan, Eusko Jaurlaritzaren politiketan lehentasunezko zat jotako sektore edo eremu berrietan ezagutza eta gaitasuna sortzeko proiektuak garatzen dira. Beharrezkoa den ezagutza eta gaitasuna sortu ondoren, Lanbide Heziketako gure ikastetxeak lankidetzan aritzen dira enpresekin, eta, hala, euskal produkzio-sarearen egungo eta etorkizuneko beharrei erantzuten zaie. Gaur egun hemeretzi espezializazio-arlotan egiten da lan.



**ESPEZIALIZAZIO-ARLOETAN LAN
EGITEN DUTEN IKASTETXEAK**

55



**ESPEZIALIZAZIO-ARLO
EZBERDINAK**

19

- > 3D inprimaketa.
- > Fabrikazio aditibo robotikoa.
- > Makinen Internet (IoM).
- > 4.0 lantegi adimendunak.
- > Zibersegurtasun industrialak.
- > Elikadura berrikuntza (Landarrain).
- > Eraikuntza adimenduna eta jasagarria (BIM).

- > Automobilaren oinarrizko teknologia.
- > Bioteknologia-laborategiak.
- > Etxebizitza adimendun egokitua.
- > Zenbait sektoretan aplikatutako sistema adimendunak.
- > Konputazioa hodeian.
- > Robotika autonomoa.
- > Blockchain Euskadiko Lanbide Heziketa.
- > Hidrogenoa eta energia.
- > Zentzumeneren Internet (IoS).
- > Ekonomia zirkularra zenbait sektoretan.
- > Murgiltze-ingurune birtualak.
- > Ingurune adimendun interaktiboak.

ZAINTZA-NODOAK

Nodo horiek sektoreen arabera antolatzen dira, eta, haietatik abiatuta, sareen arteko lan koordinatua- ren bidez, gaitasun berri bereizgarriak identifikatu, lehenetsi eta garatzen dira LHko ikastetxeentzat eta produkzio-sarearentzat, sektoreetako enplegagarritasuna aztertuta. Gaur egun zazpi nodo haue- tan egiten da lan.



ZAINTZA-NODOETAN INPLIKATUTA DAUDEN LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXEAK

29



GAUR EGUN LANTZEN ARI DIREN ZAINTZA-NODOAK

7

- > Fabrikazio aurreratuaren nodoa.
- > Fabrika digital eta konektatuaren nodoa.
- > Robotika autonomoaren nodoa.
- > Energiaren nodoa.
- > Biozientzien nodoa.
- > Osasunaren nodoa.
- > Industria sortzaileen nodoa.

LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXEEN BERRIKUNTZA-PROIEKTUAK

Teknologiaren edo biozientziaren eremuko proiektuak dira, ikastetxeek beren estrategia- eta berrikuntza-taldean azterketaren ondorioz garatzen dituztenak.



**LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXEETAN
AZKEN LAU IKASTURTEETAN LANDU
DITUZTEN PROIEKTUAK**

258

6.2/ NAZIOARTEKOTZEA

Nazioartekotzea funtsezko eremua da Euskadiko Lanbide Heziketan, Eusko Jaurlaritzaren nazioartekotze-estrategiako lau ARDATZAK garatzen laguntzen baitu.

Nazioartekotzeari buruzko 2023-2024ko datuak:



**EUSKADIKO LANBIDE
HEZIKETA KIDE DEN
NAZIOARTEKO SAREAK**

16



**EUSKADIKO LANBIDE
HEZIKETAREKIN HARREMANETAN
DAUDEN HERRIALDEAK**

103



**EUSKADIKO LANBIDE HEZIKETAREKIN
PROIEKTU ZEHATZAK GARATZEN
DITUZTEN HERRIALDEAK**

81

Era berean, Euskadiko Lanbide Heziketa Europako bikaintasun-plataformen (CoVE - Centre of Vocational Excellence) sareko kidea da, eta Berrikuntzako Europako Lanbide Heziketako zentro onenak biltzen ditu.

Azken lau ikasturteetan, Euskadiko Lanbide Heziketak erantzukizun hauek hartu ditu bere gain Europako sarean:

- > 2020-2021ean, Euskadiko Lanbide Heziketa EXAM4.0 (Excellence Advance Manufacturing 4.0) fabrikazio aurreratuko Europako plataformaren buru izan zen.
- > 2021-2022an, Euskadiko Lanbide Heziketa EXAM4.0 (Excellence Advance Manufacturing 4.0) fabrikazio aurreratuko Europako plataformaren buru izan zen eta GIVEn (Governance For Inclusive Vocational Excellence) hartu zuen parte.
- > 2022az geroztik, Euskadiko Lanbide Heziketa LCAMP (Learner-Centric Advance Manufacturing Platform) fabrikazio aurreratuko Europako plataformaren buru da, eta GIVEn (Governance For Inclusive Vocational Excellence) eta SECOVEn (Sustainable Energy Centres Of Vocational Excellence) hartzen dugu parte.

“HORIZON EUROPE” EUROPAKO IKERKETA-PROIEKTUEN KOP.

Gaur egun, Euskadiko Lanbide Heziketak 2 proiektutan dihardu:

1. PROIEKTUA: BRIDGES 5.0

ZEREGIN NAGUSIA	IKERKETA-TALDEAK	BAZKIDE ESPEZIFIKOAK
Lanaren bilakaera aztertzea teknologiarri dagokionez	1 / TNO (Holanda) buru/koordinatzailea 2 / CNAM (Frantzia) 3 / University Bari (Italia) 4 / Agder University (Norvegia)	1 / Workplace Innovation Europe
Hezkuntza, heziketa, enpresen barruan eta kanpoan	1 / IER Warwick University (Erresuma Batua) 2 / HIVA/CeSO-KUL (Austria) 3 / Patras University (Grezia) 4 / TKNIKA (Euskadi) 5 / Mondragon University (Euskadi)	1 / AGORIA, SmartIndustry (Herbehereak) 2 / LPK (Lituania) 3 / I4.0 Plattform (Austria) 4 / FH Joanneum (Austria) 5 / MONDRAGON Korporazioa (Euskadi)
Sareak sortzea enpresekin, gizarte solaskideak, industria-sareak, hezkuntza	1 / SFS-TU Dortmund (Alemania) 2 / KTU (Lituania)	1 / ESSI, EUWIN

2. PROIEKTUA: ADMA TRANSFORMERS

ZEREGIN NAGUSIA

Fabrikazio aurreratuko sektoreko ETEetan diagnostikoak egitea, 4.0 industriaren teknologiak zenbateraino ezarri dituzten jakiteko eta ekintza-plan bat diseinatzeko.

PROIEKTUAN LAN EGITEN DUTEN BAZKIDEAK

- 1 / Irish Manufacturing Research (Irlanda)
- 2 / Kearney IMP³ROVE (Alemania)
- 3 / F6S Network Ireland (Irlanda)
- 4 / **Tecnalía (Euskadi)**
- 5 / **IMH (Euskadi)**
- 6 / MADE (Italia)
- 7 / ARCCONSULTING (Bulgaria)
- 8 / EUROPA MEDIA (Hungaria)
- 9 / LATVIAN TECHNOLOGICAL CENTER (Letonia)
- 10 / RISE IVF (Suedia)
- 11 / Mazovia Development Agency (Polonia)
- 12 / PIAP (Polonia)
- 13 / AFIL (Italia)
- 14 / SISTEM@TIK PARIS REGION (Frantzia)
- 15 / DIMECC (Finlandia)
- 16 / MASOC (Letonia)
- 17 / North-West Regional Development Agency (Errumania)
- 18 / CyDI-HUB (Zipre)
- 19 / Tehimpuls (Errumania)
- 20 / Malta Enterprise (Malta)
- 21 / Pragma (Grezia)
- 22 / BIC Bratislava (Eslovakia)
- 23 / Civitta (Estonia)
- 24 / Netcompany Intrasoft (Luxenburgo)
- 25 / Fasstrack Action (Portugal)
- 26 / University of Maribor (Eslovenia)
- 27 / Technology Centre of the Czech Academy of Sciences (Txekiar Errepublika)
- 28 / Vilnius Chamber of Commerce, Industry and Crafts (Lituania)
- 29 / European Crowdfunding Network (Belgika)
- 30 / BEIA (Austria)
- 31 / Lithuanian Innovation Centre (Lituania)
- 32 / Innovation Quarter (Herbehereak)
- 33 / RiniGARD (Kroazia)
- 34 / Danish Technological Institute (Danimarka)
- 35 / F6S Network (Erresuma Batua)



Fp
EUSKADI
LANBIDE HEZIKETA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA
Lanbide Heziketako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Viceconsejería de Formación Profesional